

Top quark

INAKI SEGUOLA



Ez zen txoxperriko kontua; idatzia zegoen Dotriñan: quark-ak sei, leptoiak sei. Materiaren osagaiak hamabi: ez dok hamahiru! Duela 25 mende atomoa asmatu zutenetik hona, Zientzia abstraktuago egin da eta Materiaren puxkakiak funtziogero, eta funtziogeroen artean quark-ak, orain 30 urte asmatuak. Bai: zientziak lehenbizi asmatu eta bataiatu egiten dira, eta gero arkitu, eta, halatan, urteetan bila ibili ondoren, joan den astean harpatu dute Txikagor quark-etan azkena, Top edo Gain deitua, Bottom izeneko bostgarren quark-aren ezkonlaguna, binaka bizi baitira hauek ere, gizaquark-en antz eta agindura.

Zer egin dute, ikusi? Ez, ez: Fedea ikusi gabe sinestea da. Sortu egin dute edo, zuzenago esan, berpiztu: quark-ak, bi ez beste guztiak, Unibertsoaren hastapeneko beroaldian jaio eta berehalaxe itzali ziren, hari-eta, milaka miloi urtez ezerezean igeri ibili ondoren, azken urte hauetako partikula-azeleragailuetan berriro munduratu dituzten arte. Bai istorio-mixterio polita, e? Oraintxe zeharo sinetsia nago hilotz torturatu baten aurrean Barne ministroek ematen dituzten esplikazio-moduak Zientziaren apostoluei ikusiak direla. Esplikazio horien funtsa Xenpelarrek kantatu zuten aspaldi: «txantxangorri batenak sei libra tripak».

Esquibide osoz sartu da Top quark-a gizaideien irudipenez mamitutako Errealitate honetara, sasoi batean, eguna orrazten pasatzen zuten Murumendiko Dameak eta Ezkion agertu zen Amabirjinak zituzten eskuibide berberekin.

Esatera den bezala, tikia alua izaten da, eta Zientziaren apez-ekekutiboak ere aspertuko dira tikiaren tiki, Erdi-Aroan orratz-mutur batean zenbat aingeru egon zitezkeen kontatzen aspertu ziren bezala.

Erruki haut, Top-Gain! Laster haiz atzera ezerezaren loan etzana.

Latvia

TXILLARDEGI



ALDIZKARI berri bat argitaratzen hasiak dira Rigan. Bertako Unibertsitateak sortu du. Helburua: Letoniako gorabeherak munduari jakin eraztea. Urtean lau aldiz agertuko da, ingeles hutsuz. Lehenengo alean eman duten aurkezpenak garbi utzi du letoniaren irizpide nagusia Errusiari buruz: «militarily enormously powerful, culturally rich and politically extremely unreliable Russia». Gogoz sinatzen ditut nik ere lerro horiek.

Latvia-ko gorabeherak guztiz dira interesgarri (berek 'Latvia' esaten badute, ez dugu guk 'Letonia' esango!) gure herri itu honetan. Gure herri kidea, eta anaia bizkia, ez baita Cuba, ez baita Nicaragua. Kide hori, egotekotan, Latvian baitago; eta Estonian pittin bat urrunago. Hain zuzen ere: guk oso gutxi ikas dezakegu Cuban eta Nicaraguari. Eta bada garaia argi eta garbi esateko.

Latvian (1.500.000 latvian) sekulako etorkin-pila kokatu da bertan 1940ko okupazioaz geroztik: 20.000 urtean, 'Internazionalismoaren' eta 'sozialismoaren' izenean, egundoko erusiariakunza egon da. Latviarrak % 52 besterik ez dira gaur beren herrian. Latviako sei hiri nagusietan (Riga bame) erusiarrak bihurtu dira gehiengo. Argitaratzen diren 279 aldizkarietatik, 196 daude erusiaren eta 45 dira elebidun (erusiaria/latviera).

Latviarren artean % 70 dira elebidunak, baina erusiari etorkinen artean % 20k bakarrik ikasi dute letonieraz mintzatzeko.

Hitz batez: Latvian erusiari inperialismoak burututako des-nazioetaren kontrako borroka du arazo nagusi. Itsaso Baltikoaren heriotza ekologikoa, desoreka ekonomiko osoa, eta abar eta abar, hemen ia aipatu gabe uzten ditugularik.

Nola ari dira latviarrak beren herri birrindua berreirikitzen? Horra hor abertzale guztiak kezka nagusizat hartu behar genukeena.

DEIA

Aznarrek ez du zentsurara joko heldu gabe jarraitzen duelako

Jose Maria Aznar PPko lehendakariak atzo adierazi zuenez, ez du Felipe Gonzalez Gobernutik botatzeko horren aurkako zentsura mozioa aurkeztuko, nola bait «guzkiari topa egitearen» antzekoa bailitzateke eta frustrazioa besterik ez bailuke sortuko, Gobernuo aurkariak bezperan egindako prentsaurrekoari emango zion erantzunaren zain zuden kazetari ugarien aurrean onartu zuten bezala.

Aznarrek, berak ere, espero zitekeena esan zuen. Ez du bere aurrekoak, hots, Manuel Fragak Alianza Popularreko lehendakari izateari utzi zionean kargua hartu zuten Antonio Hernandez Manchak, ia-ia bere estreinkoakin-

HEMEROTEKA



Aizu! Gobernuo norbaitekin nahastu nauzu ala? Ni lapur xume bat besterik ez naiz, gizon...! LOPEZ & PEREZ / EGIN

za izan zenean egindako irristada beragatik erori nahi.

Fragaren egungo dofinak, are ahoskeran, esaldi tipikoetan eta ahots modulazioetan ere hura imitatzen duenak, bidezkotasan osoz Felipe Gonzalezzi aurpegitzeko duen karga guztia azaldu

zuen eta, berriro ere, bere ikuspuntutik herria oraindik ere murgilduta dagoen paisaia nahasi eta hondatua errepikatu zuen. Hala ere, konponbidei dagokionez, Aznar espainiar analogietako aspaldiko alegia taurinoaz ere baliatu zen, eta bera orain «galeria-

ren aurrean toretatzeko» gabe herriko arazoak konpontzeko dagoelotasenez atara zen plazatik.

Aznarrek badu oinarriko arazo bat, alegia herritar guztiak gauze bere ikuspegi bera izatea nahi duela, eta uste du deitoreak zabalduz berehala eramango dutela Gobernura handik berak salatu dituen hondameñuariak harri-garriro konpon daitezzen eta berriro gerta ez dakizkion.

Gonzalezek daukan boterea erabili ezinda, Aznarrek bere irudia erakusten du. Eta horretan agerian gelditzen da bera pertsona bezala «oso berde» dagoela bere aurkariaren eskarmentuaren aldean, batez ere inprobisatzeko orduan. Eta Gonzalezekiko deprezioak, hauteskontzietan horrelakorik gertatuko balitz, ez du besterik gabe esan nahi masiboa dela Aznarren aldeko jarrera, hain zuzen ere aurrera jarraitzeko eta gobernatzeko dakarren higidura eraman ahal izateko ezinbesteko duena.

EDITORIALA

UZENDARIARI

Otsoaren hortzak

Gezurretik bizi denari min ematen dio egia. Gezurretik gizentzen ari dena agintaritzea denean, berriz, benetan artiskugarririk bilakatzen zaio egia pertsona soilari. Orduan, Ausardia behar izaten du herriak, eta ez nolana hikoak!, gezurra salatuz egia aldarrikatzeko. (Gogoan har herriaren oniritzia irabaziz igo direla agintariak euren jazarlekuetara, engainuz bada ere).

Kultur taldeoi herri ausardia horren aintzindari eta akuilu izatea dagokigu, geure buruak mezularizat ditugun neurrian, nahiz eta zenbait agintaritzaren eskerrona irabaztea maitagarriago zaion egia aldarrikatzeagatik hark begitan hartua gertatzeko arriskuan erortzea baino.

Kultur taldeen mezu kritikoari adi egoten zaio, noski, agintaritzea, demokrazia itxurari eusteko behar duen neurrian entzungor eginez eta elikagai zaizkion botoak gaitzoriak jartzen dizkiotela uste duenean haien autozentsura probokatu, batzutan hitza ukatuz. Anje Duhalderen kasuan bezala eta beste batzutan hitza moztuz ETBko bertsolarien kasuan bezala, noizbehinka ardiruereko diktadura-hortzak erakusten dizkigula, bati erakutsiz, kantari eta bertsolari guztiak izutzeko asmatan.

Ez dugu etsiko. Badakigu hor dagoela otsoa, baina, beldurrak ezkutarazi du ardiruerean, eta, usaina harturik hurbiltzen goazkiola ikusi duenean, larritasunaren larritasunez, hortzak erakutsi beharreen gertatu da. Amor eman gabe aurrera egiten badugu, laister abiatuko da gure basoetatik ihes, edo botorik gabe, akabatu egingo da.

GOAZ ANTZERKI TALDEA

Deba (Gipuzkoa)

Beti egurra besteentzat

Orain egun batzuk Euskal Telebistan entzuten egon nintzen PPko jauntxo bat.

Bere alderdia izanik berrogei urtean jaun eta jabe Gobernatu dutenen ondorengoa, nahiz eta oraingo gazte asko bertan direnek zerikusirik ez duten orduko gertakizunekin asko dira beraien artean berrogei urte haietan eta guda bildugarri hartako ekintzetan aurreneko lekuetan ibiliak direnak eta berriak dira herriak aukeratuak agintarien araua jaiki ta milioi bat hil ziren pertsonen responsable bakarrak direnak.

Guk bozketaren bitartez aukeruta zen Gobernua defenditzea besterik ez genuen egin, matxinadan jaiki zirenen aurka ta berriak arrazoirik ez baina, indarra beraiekin

zutelako, nagusitu ziren aleman, italiانو ta beste erbestetarren laguntza medio zutelarik eta gu benetan zigortuak eta milaka asko fusilatuak izandu ginen.

Zuk esan dezu ez dela behar barkamenik heriotza egin dutenentzat.

Zure lagun eta aurrekoak gerra irabazita etzan posible izan kulpable bakar haiek zigortzerik eta egur guztia gure bizkarrera erori zen eta gero diktadura hankaz gora joan eta batzuek esaten duten bezala buelta etorri denean, zer justizi egin zaie beraien?

Pertsona guztiak dute bizitzeko dextrota ta oraingo euskaldun gazteek ehunka heriotza eragin badituzte, zuen aurrekoak, milioia hil arazi zituzten.

Askok esaten duzue gerrako gertaerak ahaztu egin behar direla, ta zergatik ez geroagoak?

Zuek bezelako demokrata asko ezagutu ditugu. Lehenago jaun eta jabe zinetenean zuen demokrazia organikoarekin berrogei urteko zigorra eman zeniguten eta orain deborak itxuraz aldatu direnean, inor baino demokratikoagoak aurkitzen zarete.

Ikusten dugu aprobetxategi batzuek aurrera botata, atzetik lehengoek jaun eta jabe jarraitzen dutela.

INAKI ISASMENDI Hendaia (Lapurdi)

GAIA JARRITA



Herri Urrats

Aurtengoz ere Senperen dugu ospatzen Herri Urratsa, nahiz derbia dagoen eta buelta Euskaditik pasa. Zuen laguntzan beharra dugu nahi bada euskara altxa, ta lakuaren inguruan elkar eman dezagun urratsa.

NAGORE FERNANDEZ

Egunkaria

Batzorde Parekidia: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialako Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URUA

Gereñes: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELLO OTAMENDI

Zuzendartordea: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Publizitate: MARI JOSE SARASA

Espeiniako Publizitatea: PUBLICITAS

Capitan Haya 1.2.a 28020 Madrid / w: 91 555 11 01 / Fax: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredielitza eta Tailerra: ANITZA S.A. Industrialeda 01-02 Pablikoak / 20160 Lasarte-Oria / w: 37 15 45 / Fax: 36 54 93

Egoktza soziales, Publizitatea eta Administrazio: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / w: 46 90 22 / Fax: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Leher / 01005 Gasteiz / w: 23 38 72 / Fax: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / w: 17 80 7879 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zabaltzura Eparantzua, 2-1. ezkerre / 48003 Bilbo / w: 410 40 46 / Fax: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pamplona 14, 1 / 503 Posta kutxatua, / 64100 Baiona / w: 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11